

9. KOSTU EGITURA

Kalkulu-orrian gure proiektuaren kostuak eta diru-sarrerak azaldu ditugu, proiektua ekonomikoki posible den ikusteko.

Alde batetik, kostu finkoak daude. Hauek dira proiektua martxan edukitzeko beharrezkoak diren gastuak, adibidez lanerako espazio txiki bat, aseguruua (materiala hezkuntza-zentroetan instalatzean edo erabiltzean sor daitezkeen kalteak estaltzeko balio duena), eta webgunea eta taldearen soldatak. Gastu hauek ez dira asko aldatzen.

Bestetik, kostu aldakorak daude. Hauek ikastetxeetan egiten diren instalazioen arabera aldatzen dira. Hemen sartzen dira erlaxazio-makinak, humidifikadoreak, koltxonetak, panelak, pinganilloak, garraioa eta mantentze-lanak.

Azkenik, diru-sarrerak ikastetxeei egindako instalazioengatik eta mantentze-harpidetzengatik lortzen ditugu. Kostu guztiak kontuan hartuta, proiektuak mozkina sortzen du, eta horrek erakusten du ekonomikoki bideragarria dela.